

DK202511 DEKRETUA
OLAK AUZO ELKARTEARI DIRULAGUNTZA ONARTZEA

Gaurko datarekin Auzo alkateak honako Dekretu hau eman du:

DEKRETUA: Ereñotzun, 2025eko martxoaren 28an

Olak Auzo Elkartearen helburua da, Jaiak eta kultur ekintzak antolatzea.

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren xedea, besteen artean, jardun hauek sustatzea ere bada. Interes orokorrekoa da elkarteari diru-laguntza ematea. Elkartea, irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta xede hori egiten diharduen elkarte bakarra da.

2025eko Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko aurrekontuetan Olak Auzo Elkartearen aldeko diru-laguntza izenduna jasotzen da,

Diru-laguntzen 2023-2025 Plan Estrategikoan jasota dago.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 16. artikuluan lankidetzak hitzarmenak formalizatzeko irizpideak ezartzen ditu.

Eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Ereñotzuko Toki Entitate Txikia eta Olak Auzo Elkartearen arteko lankidetzak hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- 36.400€ (euro) diru-laguntza onartzea, hitzarmenaren hirugarren klausulan xedatutakoa betez, partida honen kargura: 01.481.01.334.00 Dirulaguntza zuzenak AD-77/2025

Hirugarrena.- Ordainketa, hitzarmenaren laugarren klausulan jasota bezala egitea: diru-laguntzaren %80 (29.120€) aurreratuko da erabaki honekin batera, eta gainontzeko %20 (7.280€) justifikazioa aurkeztean.

Olatz Juantorena Aizpurua auzo alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, udal idazkariordearen delegatua naizen honek ziurtatu dut.

Auzo Alkatea

Fede ematen dut:

Udal idazkariordearen delagatua

